



MALLABIA ELIZATEKO UDALA



2024-2025 IKASTURTEAN EUSKARA- IKASTAROAK EGITEKO BEKAK EMATEKO MODUA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

Mallabiko Udalarentzat oso garrantzitsua da helduak euskalduntzea eta alfabetatzea, udalerriko euskal hiztunen kopurua handitzeko.

Horretarako, 2024-2025 ikasturterako aurrekontuan kontu-sail bat izendatu da, 2024/2025 ikasturtean helduen euskalduntze-ikastaroetara joaten diren Mallabiko biztanleei bekak emateko.

1. Artikulua.- Helburua

Ebazpen honen xedea da 2024-2025 ikasturtean helduen euskalduntze- eta alfabetatze-ikastaroak egiteagatik Mallabian bizi direnentzako bekak norgehiagoka bidez emateko baldintzak arautzea, Udalean eta udalerrian Euskara Sustatzeko Udal Ordenantzan xedatutakoa betez, normalizazioa bermatze aldera.

2. Artikulua.- Onuradunak

Beka hauek Mallabiko udalerrian erroldatuta dauden eta udal euskaltegietan eta euskaltegi pribatuetan eta barnetegi homologatuetan ematen diren euskara ikastaroetara joaten diren pertsona guztiek jaso ahal izango dituzte.

Ezingo dira dirulaguntza honen onuradun izan Hizkuntza Eskola Ofizialean edo IRALeren, IVAPen eta abarren programa espezifikoaren bidez ikastaroak egin dituztenak.

BASES POR LAS QUE SE REGULA LA CONCESIÓN DE BECAS POR LA REALIZACIÓN DE CURSOS DE EUSKERA DURANTE EL CURSO 2024-2025

Para el Ayuntamiento de Mallabia es de vital importancia la euskaldunización y alfabetización de las personas adultas en aras a incrementar la población vasco parlante del municipio.

Por ello se consigna una partida presupuestaria para el curso 2024-2025 con el fin de otorgar becas a los habitantes de Mallabia que durante el curso 2024/2025 acudan a cursos de euskaldunización de adultos.

Artículo 1.- Objeto

Es objeto de esta resolución la regulación de las condiciones de concesión de becas, en régimen de concurrencia competitiva, para residentes en el municipio de Mallabia por la realización de cursos de euskaldunización y alfabetización de adultos durante el curso 2024/2025 dando cumplimiento a lo dispuesto en la Ordenanza Municipal para Fomento del Euskera en el Ayuntamiento y en el Municipio, con el fin de garantizar la normalización

Artículo 2.- Beneficiarios

Podrán optar a estas becas todas aquellas personas empadronadas en el municipio de Mallabia y que acudan a cursos de euskera impartidos en euskaltegis municipales, euskaltegis privados e internados homologados.

No podrán ser beneficiarios/as de esta subvención quienes hayan realizado cursos en la Escuela Oficial de Idiomas o a través de programas específicos de IRALE, IVAP, etc.



MALLABIA ELIZATEKO UDALA



3. Artikulua.- Baldintzak:

- a) Dirulaguntza normalizatuaren eskaera (eranskina).
- b) Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- c) Matrikula ordaindu izanaren agiria.
- d) Euskaltegiaren ziurtagiria, ikasleak eskoletara gutxienez % 75eko bertaratzea izan duela egiaztatzen duena.

4. Artikulua. - Dokumentazioa aurkezteko lekua

Eskabideak Mallabiko Udaleko Erregistro Orokorrean edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren tokietako batean aurkeztu beharko dira.

5. Artikulua.- Epeak

Dirulaguntza eskabideak aurkezteko epea 2025eko urriaren 31n amaituko da. Epez kanpoko eskaerarik ez da onartuko. Eskaerak ebazteko gehieneko epea azaroaren 28a izango da.

Aurkeztutako dokumentazioa osatugabe dagoela edo oinarri hauetan eskatutako baldintzak betetzen ez dituela ikusten bada, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akats formalak zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko; eta ohartaraziko zaio, hala egiten ez badu, atzera egingo duela eskaerak, ebazpena eman aurretik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 23.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Artículo 3. Requisitos:

- a) Solicitud de subvención normalizada (Anexo).
- b) Fotocopia del DNI del solicitante.
- c) Recibo del pago de la matrícula.
- d) Certificado del Euskaltegi en el que se acredita que la asistencia del alumno a clase ha sido, al menos, del 75%


Artículo 4.- Lugar de presentación de la documentación

Las solicitudes se deberán presentar en el Registro General del Ayuntamiento de Mallabia o en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de Octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas

Artículo 5.—Plazos

El plazo de presentación de solicitudes de subvención finaliza el 31 de octubre de 2025. No se admitirán solicitudes fuera de plazo. El plazo máximo para la resolución de las solicitudes será el 28 de noviembre.

Cuando se observe que la documentación presentada es incompleta o no reúne los requisitos exigidos en las presentes bases, se requerirá a la persona interesada para que en un plazo de diez días hábiles subsane los defectos formales o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se desistirá su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley 39/2015, de 1 de Octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, así como en lo dispuesto en el artículo 23.5 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones



MALLABIA ELIZATEKO UDALA



6. Artikulua.- Dirulaguntzaren zenbatekoa

2024/2025 ikasturtean euskalduntze-ikasketak egiteagatik beken artean gehienez 3.000,00 euro banatu ahal izango dira, eta gastua 335.480 aurrekontuko kontu-sailaren kontura egingo da. Zuzkidura hori ez bada nahikoa ordaindu beharreko dirulaguntza guztiak estaltzeko, hainbanaketa bat egingo da dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskatzaileen artean.

Araudi honetan aitortutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publikoek edo pribatuek xede bererako emandako beste edozeinekin, baina inola ere ezin izango da gainfinantzaketarik egon; kasu horretan, eman beharreko dirulaguntza murriztu egingo da, diruz lagundutako jardueraren guztizko kostuaren mugaraino.

Ondoren jardueraren gainfinantzaketa sortzen bada eta gainfinantzaketatik itzultzeko betebeharrak bat baino gehiago badago, pertsona edo erakunde onuradunak dagokion zenbateko proportzionala itzuliko du, Mallabiko Udalak egindako guztizko ekarpenaren arabera.

7. Artikulua.- Dirulaguntzaren zenbatekoa

Honela lagunduko da diruz, baldin eta horretarako ezarritako aurrekontuko partida nahikoa bada:

- Bertaratzea % 75-79koa bada, matrikularen % 75 ordainduko da.
- Bertaratzea % 80-89koa bada, matrikularen % 90 ordainduko da.
- Bertaratzea % 90etik gorakoa bada, matrikularen % 100 ordainduko da.

Artículo 6.- Cuantía de la subvención

La cantidad máxima a distribuir entre las becas por la realización de estudios de euskaldunización durante el curso 2024/2025 será de 3.000,00 euros, realizándose el gasto con cargo a la partida presupuestaria 335.480. Si esta dotación no fuera suficiente para cubrir el total de las subvenciones a abonar se efectuara un prorrateo entre los solicitantes con derecho a subvención.

Las subvenciones reconocidas por la presente Normativa serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por Organismos Públicos o privados para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobrefinanciación, procediendo en tal caso la reducción de la subvención a conceder hasta el límite del costo total de la actividad subvencionada.

Caso de que con posterioridad se generase una sobrefinanciación de la actividad y concurriese más de una obligación de reintegro por sobrefinanciación, la persona o entidad beneficiaria reintegrará la cantidad proporcional que le corresponda en función de la aportación sobre el total que haya efectuado el Ayuntamiento de Mallabia.

Artículo 7.- Importe de la subvención

Se subvencionará de la siguiente forma siempre y cuando la partida presupuestaria fijada para ello sea suficiente:

- Si la asistencia es de 75-79% se abonará el 75% de la matrícula.
- Si la asistencia es de 80-89% se abonará el 90% de la matrícula.
- Si la asistencia es mayor del 90% se abonará el 100% de la matrícula.



MALLABIA ELIZATEKO UDALA



% 75etik beherako bertaratzea duten ikasleek ez dute dirulaguntza jasotzeko aukerarik izango.

8. Artikulua.—Instrukzioa eta ebazpena

Eskaerak Alkatetzaren Dekretu bidez ebatziko dira, Euskararen Informazio Batzordeak proposatuta eta Euskara Sailak aldeaz aurretik txosten teknikoa eginda, azaroaren 29a baino lehen.

Data hori igarotakoan ez badago eskabidearen berariazko ebazpenik, baztertutzat joko da, nahiz eta geroago berariaz ebatzi.

9. Artikulua.- Dirulaguntzaren ordainketa

Dirulaguntza eman dela jakinarazi ondoren, dirulaguntzaren ordainketa izapidetuko da, Aurrekontuak Betearazteko Udal Arauan adierazitakoaren arabera.

10. Artikulua.- Diru-itzulera

Laguntza eta berandutze-interesa osorik edo zati batean itzuli beharko dira, xede eta aldi bererako beste erakunde baten dirulaguntzak lortzen direnean.

Halaber, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36. eta 37. artikuluetan aurreikusitako guztiak izango dira itzultzeko arrazoiak.

11. Artikulua.—Araudi osagarria

Deialdi honetan xedatu ez den orori dagokionez, Mallabiko Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantzan ezarritakoa beteko da.

Los alumnos y alumnas que tengan asistencia inferior al 75% no tendrán posibilidad de optar a la subvención.

Artículo 8.—Instrucción y resolución

Las solicitudes serán resueltas mediante Decreto de Alcaldía, a propuesta de la Comisión Informativa de Euskera, previo informe técnico del departamento de euskera, con anterioridad al 29 de Noviembre.

En el caso de que transcurrida dicha fecha, no conste resolución expresa de la solicitud, se entenderá que la misma ha sido denegada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa

Artículo 9.- Pago de la subvención

Tras la notificación de la concesión de la subvención, se procederá a tramitar el abono de la subvención de acuerdo con lo indicado en la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria.

Artículo 10.- Reintegro

Procederá el reintegro total o parcial de la ayuda y del interés de demora correspondiente, cuando se obtengan subvenciones de otro Organismo por el mismo fin y período.

Así mismo, serán causas de reintegro todas las previstas en los artículos 36 y 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Artículo 11.—Normativa complementiva

En lo no dispuesto en esta convocatoria se estará a la regulación contenida en la Ordenanza reguladora de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Mallabia.